




Antxiñako fotografixia



Uraundixak Madalena eta Zubillagan

U dan sekulako sikutia pasau ondoren, udazkena be lihorra etorriko xakula esaten euen batzuk. Baiña eztaue, horratiok, asmau eta aurten ezta esaera zaharra zihero bete, hau da, zerako zera dixuena: *Hori, udazkeneko erpilla baiño sikua-gua dok!* pertsona oso ximurra dala adierazteko. Eurixa politto egin dau eta errekek behin baiño gehixagotan hazi dira. Dana dala, bere neurrixan eta **uraundi** barik. Ez behintzat orain dala berrogeita hamar urte ezagutu gittuan modukoak.

1983ko **uramillak** ikaragarrixak izan ziran Euskal Herriko leku askotan; baiña 1953ko udazkenekuak etziran makalaguak izan Gipuzkoako baillara gehixenetan. Urte haretako urrixaren 15tik 16erako gaba bizi izan euenak ondo goguan dakoi orain-ddiok. Oñatin be galantak bota zittuan. Zer ezeben ekarri orduan errekiak! harrixak, enborrak, arbola osuak, animalixak; presak eta zubixak hondatu eta errota eta fabriketan pikardixa haundixak egin zittuan.

Argazkixan ikusten dan lez, **Madalena** eta **Zubillagako** inguru horreittan urak gainezka doiaz. Zelaitta (Gordoa) atzekal-deko trenbidia nahiz errekez bestaldeko ortu eta sagastuixak ur azpixan dagoz. Gaiñera emuten dau errekia apur bat jeisten hasi-tta daguela. Beheratxuago agiri dan Zubillagako Forjetako fabrika be atzekaldetik ur asko sartu zan, kalte nabarmenak eragi-ñaz.

Kaltiak kalte, Oñatin, zorionez, ezkeben ittotakorik izan. Gipuzkoako beste hainbat herrittan, ostera, pertsona ugari hil ziran uraundixen ondorixoz: Goierrin, Tolosaldean, Andoainen. Danak gogorrek eta tristiak izanda be, entzutetsuena akaso **Zestua** eta **Iraeta** bittartian, autobusetik urten ezindda, itto ziran hamasei pertsonen ezbihar latza izan zan.

J. E.

Fotografixia Oñatiko Argazki-taldekuak itxittakua da.